



Espediente zk./Nº Expediente: 2026SDBD0014

Gaia/Asunto: 8.1. Dirulaguntza lerroa: Emakumeak: Topaketak eta gizartean parte hartzea 2026-2027 / Línea de Subvención 8.1.: Mujeres: Encuentros y participación social 2026-2027

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

ERANSKINA - 8.1. DIRULAGUNTZA LERROA: EMAKUMEAK: TOPAKETAK ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA- 2026. OINARRI ESPEZIFIKOAK

ANEXO - LINEA DE SUBVENCION 8.1.: MUJERES: ENCUENTROS Y PARTICIPACIÓN SOCIAL - 2026. BASES ESPECÍFICAS

1.- Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, "Emakumeak: topaketak eta gizartean parte hartzea" Programan parte hartuko duten Errenteriako auzoetako emakume elkarteei antolatzen dituzten ekintzak diruz laguntzea. Horien helburuek bat etorriko beharko dute Udalaren Berdintasunerako sailak dituenekin (2026-2027 ikasturtea).

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua.

Zenbatekoa 2026 eta 2027ko aurrekontuetako 1330.481.01.231.50 partidaren kontura izango da:

- 2026 1330.481.01.231.50 Deialdia: Dirulaguntzak emakumeak - topaketak eta gizartean parte hartzea (%50)

- 2027 1330.481.01.231.50 Deialdia: Dirulaguntzak emakumeak - topaketak eta gizartean parte hartzea (%50)

Dirulaguntza lerro honetarako dagoen aurrekontua 40.000 eurokoa da.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak ez du inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin batuta ere.

1.- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para las actividades que organizan las asociaciones de mujeres de los barrios de Errenteria que participan en el Programa "Mujeres: encuentros y participación social", cuyos fines sean acordes con los objetivos del área de Igualdad del Ayuntamiento (curso 2026-2027).

2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

El importe será con cargo a la partida 1330.481.01.231.50 de los presupuestos de 2026 y 2027:

- 2026 1330.481.01.231.50 Convocatoria: Subvenciones Mujeres - encuentros y participación social (50%)

- 2027 1330.481.01.231.50 Convocatoria: Subvenciones Mujeres - encuentros y participación social (50%)

El presupuesto disponible para esta línea de subvención es de 40.000 euros.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.



3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute ondorengo baldintzak bete eta ondorengo konpromisoa hartzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteek:

- Emakume elkarte direnak edo auzo elkarte baten baitan dauden emakume taldeak, beti ere, auzo elkartearen baitan izan arren erabakitzeke autonomia eta askatasuna dutenean.
- Elkarrearen esku hartzea Errenterian garatzea.
- Elkarreen Udal Erregistroan edota Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea.
- Berdintasun departamentuaren helburuekin bat datozen ekintzak eta ikastaroak eskaintzea.
- Taldeen arteko bilera guztietan eta lan batzordeetan parte hartzea.

Ezin izango da dirulaguntza hauen onuradun izan, ERREENTERIAKO UDALAK 2026 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN laugarren oinarrian adierazitakoaz gain, dagoeneko emakume elkarte bat existitzen den auzo batean jarduten duten elkarteek, beti ere, elkarte horrek aurreko atalean ezarritako irizpideak betetzen dituztenean eta Programan parte hartzeko asmoa duenean.

Eskaearekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek eskabidearekin batera, Errenteriako Udalak 2026. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

Podrán solicitar subvención aquellas asociaciones sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos y asuman los compromisos siguientes:

- Estar constituida como asociación de mujeres o como grupo de mujeres dentro de una asociación vecinal, siempre y cuando a pesar de estar en una asociación vecinal se tenga autonomía y libertad de decisión.
- El ámbito de actuación tiene que ser el municipio de Errenteria.
- Estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones, o en su defecto, en el Registro General del Gobierno Vasco.
- Ofertar cursos y actividades acordes con los objetivos del departamento de Igualdad.
- Participar en todas las reuniones intergrupales y en las comisiones de trabajo.

No podrán participar en este programa las entidades que no cumplan los requisitos que constan en la base cuarta de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2026 o que realicen su actividad en un barrio donde ya existe anteriormente una asociación de mujeres que cumple los requisitos exigidos en los anteriores apartados y vaya a participar en el Programa.

Documentación a presentar con la solicitud:

Quienes soliciten deberán presentar con la solicitud, de acuerdo con lo establecido en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026, la siguiente documentación:



- Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.
- Diruz laguntzea nahi den proiektua, jarduera edo programa, erakunde eskatzailearen organo eskudunak onartua.
- Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu:
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.
- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.
- Proyecto, actividad o programa para el que se solicita la subvención, aprobado por el órgano competente de la entidad solicitante.
- El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberán aportar los documentos acreditativos exigidos en la convocatoria:
- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.
- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2026ko uztailaren 1ean.

Proiektua aurkeztu beharko da horretarako sorturiko inprimaki-eredua beteaz.

Epe horretan zehar Berdintasun departamentura jo daiteke informazio eske (943449576 edo berdintasuna@errenteria.eus)

5.- Balorazio Batzordea

Dirulaguntza lerro honetako Balorazio Batzordean, ERREENTERIAKO UDALAK 2026 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN zortzigarren oinarrian zehaztutako pertsoez gain, Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giza Eskubideak departamentuko arduradun teknikoa ere kide izango da.

4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 1 de julio de 2026.

El proyecto deberá presentarse cumplimentando el impreso de solicitud creado al efecto.

Durante ese plazo se podrá solicitar información dirigiéndose al departamento de Igualdad (943449576 o berdintasuna@errenteria.eus)

5.- Comisión de Valoración

La Comisión de Valoración de esta línea de subvención estará compuesta, además de por las personas señaladas en la base octava de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2026, por la persona técnica responsable del departamento de Diversidad Cultural, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos.



6.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

- Aurrekontuaren %40a elkarte guztien artean banatuko da denei kopuru berdina emanaz.
- Aurrekontuaren %60a 2026-2027 ikasturtean antolatuko dituzten ekintzen edukiaren arabera izango da. Kontutan hartuko den puntuazioa hurrengo delarik:

6.- Criterios de valoración de las solicitudes.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

- El 40% del presupuesto se repartirá por igual a todos los grupos.
- El 60% en función del contenido de la propuesta de actividades que se organicen durante el curso 2026-2027. Siendo la puntuación a tener en cuenta la siguiente:

EMAKUMEEN BOTERETZEA BULTZATU EDO GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEN DUTEN EKINTZAK ACTIVIDADES QUE IMPULSAN EL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES O QUE INCORPORAN LA PERSPECTIVA DE GÉNERO	PUNTUAK PUNTOS
Gutxienez 2 orduko ekintza <i>Actividad de 2 horas como mínimo</i>	1
3 ordutik 12 ordu bitarteko ekintza <i>Actividad entre 3 y 12 horas</i>	3
13 eta 32 ordu bitarteko ekintza <i>Actividad entre 13 y 32 horas</i>	5
33 eta 42 ordu bitarteko ekintza <i>Actividad entre 33 y 42 horas</i>	7
43 ordutik gorako ekintzak <i>Actividad de más de 43 horas</i>	10
BESTE EKINTZAK - RESTO DE ACTIVIDADES	
Gutxienez 60 orduko iraupena duen ikastaroa <i>Actividad de 60 horas como mínimo</i>	5
Bolondresak egiten dituzten ekintzak edo 60 ordu baino gutxiagokiak <i>Actividades realizadas por voluntarias o de menos de 60 horas</i>	2
PARTE-HARTZEA PARTICIPACIÓN	GEHIENEZ 13 PUNTU



Udalarekin edo herriko eragileekin jarduerak antolatzea · <i>Organizar actividades junto con el Ayuntamiento o agentes locales</i>	5
Koordinazio-bileretan parte hartzea · <i>Participar en las reuniones de coordinación</i>	5
KULTURARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEA · FOMENTO LA CONVIVENCIA INTERCULTURAL	2
Udalerrira iritsi berri diren edo atzerriko jaioterria, bestelako hizkuntza, kultura edota aniztasuna duten emakumeak programan parte hartzeko jarduerak egitea · <i>Realización de actividades para la participación en el programa de mujeres recién llegadas al municipio o con origen, lengua, cultura o condición diversa</i>	1
Aurreikusten diren jarduerak · <i>Actuaciones previstas</i>	1
Proiektuan parte hartzen duten pertsonen familia, lana eta norberaren bizitza zaintza lanekin eta erantzunkizunarekin uztartzeko neurriak. Medidas para conciliar la vida familiar, laboral y personal de las personas participantes en el proyecto con el cuidado y la responsabilidad.	1
HIZKUNTZA IDIOMA	GEHIENEZ 5 PUNTU
Eskabidea eta proiektuaren dokumentua euskaraz egitea. <i>Solicitud y documento del proyecto en eukara.</i>	2,5
Jardueren erdia edo gehiago euskaraz egingo da. <i>La mitad o más de las actividades se realizarán en euskera.</i>	2,5

Honako hauek emakumeen ahalduntzea bultzatu edo genero ikuspegia txertatzen duten ekintzen adibideak dira:

- Emakume izateagatik bizitzako etapa ezberdinetan bizi ahal dugunaren inguruko ikastaroak (Adb. Amatasuna, alarguntasuna, zaintza, amona zaintzailea, nagusitzea, maitasuna, sexualitatea, hilerokoa, menopausia,...)
- Elkartearen antolamendua, kudeaketa eta administrazioa hobetzeko ekintzak (Adb. gestiorako autonomia, jende aurrean hitz egiteko teknikak, negoziatzeko abileziak, ...)

Estos son ejemplos de actividades que impulsan el empoderamiento de las mujeres o incorporan la perspectiva de género:

- Cursos sobre lo que podamos vivir en distintos momentos de nuestras vidas por ser mujeres (Ej. Maternidad, viudedad, cuidado, abuelas cuidadoras, hacerse mayor, amor, sexualidad, menstruación, menopausia,...)
- Actividades para mejorar la organización de la asociación, gestión y administración (Ej. Autonomía para la gestión, técnicas para hablar en público, habilidades para negociar, ...)



- Emakumeen autonomia bultzatu eta ohiko roletatik haratago doazen ekintzak. (Adb. brikolaje ikastaroa, teknologia berriak, DJ ikastaroa, Txalaparta, Batukada, Xakea, mendian orientatzen ikasi, bizikleta konpontzea, Lilatoian parte hartu...)

- Genero ikuspegia txertatzen dituzten ekintza kulturalak. (Adb. historia, literatura, zinea, komikigintza, argazkigintza, artea, ipuinak...). Genero ikuspegia txertatzen dutela ulertzen da arlo hauetan emakumeen esperientzia ezagutzea denean helburua.

- Actividades que promueven la autonomía de las mujeres y van más allá de los roles (Ej. Curso de bricolaje, nuevas tecnologías, curso de DJ, Txalaparta, Batukada, Ajedrez, aprender a orientarse en el monte, arreglar la bicicleta, participar en la Lilatón...)

- Actividades culturales que incorporan la perspectiva de género (Ej. Historia, literatura, cine, comics, fotografía, arte, cuentos...). Se entiende que estas actividades incorporan la perspectiva de género cuando se trata de conocer la experiencia de otras mujeres en estos ámbitos.

7.- Zenbatekoa esleitzea

Ezarritako irizpideak aplikatu ondoren, aurrekontuan dagoen diru guztia esleitu ez bada eta elkarrekin eskatutako kopuru guztia ez bada bete, soberan dagoena, 2026-2027 ikasturtean antolatuko dituzten ekintzen edukiaren arabera lortutako puntuazioaren arabera banatuko da.

Aurrekoa eginda, oraindik udal aurrekontua bere osotasunean ez bada esleitzen, berriro eragiketa berdina egingo da behar den aldi guztietan, aurrekontua bere osotasunean esleitu arte.

7.- Asignación de la cuantía

Si una vez aplicados los criterios establecidos, no se hubiera asignado a las Asociaciones el total del presupuesto disponible, y no se hubiera cubierto el total de lo solicitado por la Asociaciones, el sobrante se repartirá en base a la puntuación obtenida en función del contenido de la propuesta de actividades que se organicen durante el curso 2026-2027.

Si tras dichas operaciones aún no se agota el presupuesto asignado a esta línea de subvención, se procederá a aplicar la misma operación cuantas veces sea necesaria hasta agotar el presupuesto total.

8.- Dirulaguntzaren ebazpena

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio.

Ebazpena udal iragarki ohean eta udal web gunean argitaratuko da. Hein berean banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza ukatzen zaien pertsona edo entitate eskatzaileei.

8.- Resolución de la subvención

La resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución se publicará en el tablón de anuncios municipal y en la página web municipal. Igualmente se notificará individualmente a las personas o entidades solicitantes a las que se deniegue la subvención.

9.- Dirulaguntza ordainketa eta ordainketa aurreratuak.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

%50 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkeztutako jardura programa gauzatzeko baldintzarekin.

9.- Abono de la subvención y pagos anticipados.

Los importes de la subvención serán abonados de la siguiente forma:

El 50% tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.



%30 2027ko urtarrilean ordainduko da.

El 30% se abonará en enero de 2027.

%20 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

El 20% tras la presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

10.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

10.- Justificación de la subvención.

Dirulaguntzaren hirugarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da eta epe muga 2027ko uztailaren 1a izango da.

El tercer pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 1 de julio de 2027.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, ERREENTERIAKO UDALAK 2026 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2026:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Dirulaguntzaren eskabide ereduarekin batera doan dokumentazioa bete beharko da.

Deberá cumplimentarse la documentación que se adjunta al modelo de solicitud de subvención.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERREENTERIAKO UDALAK 2026 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2026. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.